

Ahots-Joskera: Arau Horizontalak




AHOTS-JOSKERAREN **HELBURU NAGUSIA** AHOTSEN ANTOLAERA ON BAT LORTZEA DA... AHOTS BAKOITZA **ABESTEKO ERRAZA** EGINEZ, **BITARTE ARRARO** EDO **JAUZI HANDIAK** EKIDINEZ!

BAIMENDUTA EDO **DEBEKATUTA** DAGOENAREKIN HASI BAINO LEHEN KOMENTATU DITZAGUN LAU AHOTSETARA IDAZTERAKOAN **GARRANTZITSUAK DIREN HAINBAT EZAGARRI:**

AHOTS BAKOITZA **AHALIK ETA GUTXIEN** MUGITZEN DA, AKORDE BATETIK HURRENGORA ALDATZERAKOAN **HURBILEN DAGOEN NOTARA** JOANEZ!

KASU BATZUETAN BALITEKE AUKERARIK ONENA **NOTA BERDINEAN** GERATZEA IZATEA. **AMANKOMUNEAN** DUTEN **NOTA ERABILTZEA BETI DAGO ONDO!**



OHIKOA DA BAXUA **GOIKO HIRU** AHOTSEN **AURKAKO NORANTZAN** MUGITZEA. HAU, **KONTRAKO MUGIMENDU** BEZALA EZAGUTZEN DA ETA **AHOTSEN INDEPENDENTZIA** MANTENTZEN LAGUNTZEN DU.

ERA BEREAN, BAXUAK AKORDE BAKOITZAREN **HARMONIAREN OINARRI** BEZALA FUNTZIONATZEN DUENEZ, GAINONTZEKO AHOTSEK BAINO **JAUZI HANDIAGOAK** IZAN OHI DITU.

AHOTSEN INDEPENDENTZIA?

LAU AHOTSEKO HARMONIA **KONTRAPUNTU** MODU BAT DA. KONTRAPUNTUAN ALDI BEREAN **MELODIA BAT BAINO GEHIAGO** JOTZEN DIRA, AHOTS BAKOITZAK **GARRANTZI BERDINA** IZANEZ, BATEK ERE EZ DU LAGUNTZAILE BEZALA AKTUATZEN.

KONTRAPUNTUAN GARRANTZI HANDIA DAUKA AHOTS BAKOITZA **INDEPENDENTEA** IZATEAK; HAU DA, AHOTS BIK EZ LUKETE **BERDINA** EGIN BEHARKO. AHOTS BI (EDO GEHIGO) **PARALELOAN** MUGITUKO BALIRA KONPOSIZIOAK **ABERASTASUNA GALDUKO LUKE.**

GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREAK **OSO KOHERENTEAK** ZIREN ETA, ONDORIOZ, **ZORTZIDUN, BOSTUN** ETA **UNISONO PARALELOAK** EDOZEIN PREZIOZTAN EKIDITEN ZITUZTEN!



ZORTZIDUN PARALELOAK! **BOSTUN PARALELOAK!** **UNISONO PARALELOAK!**

ESTILO HONETAN KONPOSATZEKO **BESTE** ARAU GUTXI BATZUK ERE BADAUDE:

NOTA SENTSIBLEA KANPOKALDEKO AHOTSEN BATEN (SOPRANOAN EDO BAXUAN) AZALTZEN BADA, HURRENGO AKORDEAN **TONIKAN** EBATZI BEHAR DU.

BIDUN GEHITUKO ETA **LAUDUN GEHITUKO** BITARTEAK DEBEKATUTA DAUDE **EDOZEIN** AHOTS MUGITZERAKOAN.

BAINA **ALBISTE ONAK** ERE BADITUGU: **AHAL DUZUN GUTXITAN** ONDORENGOA EGINEZ PARALELOAK EKIDINGO DITUZU:

1. **NOTA AMANKOMUNA MANTENDU!**
2. **AKORDEKO NOTARIK HURBILENERA JOAN!**
3. **KONTRAKTO MUGIMENDUA ERABILI!**